

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA:

Gure proiektuaren proposamena, gure eguneroko bizitzan hortzak garbitzerako garaian, erosotasun maila handi bat eskeintzea da. Horretarako, hortzak garbitzeko eskuila eta hortzetako pasta biak bateratu ditugu, bien artean produktu berri bat sortzeko. Erosotasuna eskaintzeaz gain, hondakinak murrizteko aukera bat da gure ingurugiroa hobetuz.

Gure eskuila berezi honen funtzionamendua honetan datza: Xiringa baten antzera funtzionatzen du. Eskuilaren heldulekuan, xiringaren barruan egoten den zilindro antzeko bat dago, honek, barruan duen hortzetako pastari bultza egin dio eta honela, pasta hori hodi fin baten bidez, eskuilaren burura iristen da.

